


SECCION AMENA.



BIGARREN ARZAIGOKIA,

DONOSTIYAN, OTSAILLAREN 10-GARREN EGUNEAN, 1820-GARREN URTEAN.

MARCHA.

Soñuba joaz, marcha kantari
 Donostiyako kalera
 Orain iru urte egondutako
 Arzayak etorri gera :
 Pozez biyotzak zabaldurikan
 Begiyak ez nai alde egiñ
 Edertasunez ingurutuak
 Gure barrenak atsegiñ.

Eziñ aspertuz begira gaude
 Donostiya berriari
 Ikusten nola denbora guchin
 Egin dan lana ugari:
 Erriya guztiz ederra bada
 Jendearen naitasuna
 Iñon ere eziñ arkilliteke
 Emen dan bañon obea.

ARZAI KANTA.

Greziyako arzayak
 Ona Donostiyari
 Iru urteren buruban

Lenago Greziyatik
 Orañ menditikan
 Zubek ikusi gabe
 Eziñ etsirikan.

Greziyatik etorri
 Eta bereala
 Gaztigatu genduben
 Chit ondo giñala:
 Adiskide gureak
 Dutenian jakiñ
 Datoz beren andre ta
 Seme alabakiñ.

Atsegiñez beterik
 Nai degun erara
 Eziñ obeto pozez

Ikusten gaituztela
 Begi onarekiñ
 Euskal-erriyan artu
 Beso zabalakiñ.

Gure aldetik gera
 Aurten lenekoak
 Denbora guztietan
 Esker onekoak:
 Ezagaturik beti
 Emengo jendea
 Izan ta izangodala
 Parerik gabea.

EUSKARICHOA.

Orañ inauteriyak
 Nekeaz azturik
 Ez daukagu gogoan
 Pena naigaberik:
 Egunaz eta gabaz
 Dibertitu nairik
 Ez da kanta dantza ta
 Soñuba besterik.

ZORTZIKOA.

Urbildu geranian
 Gaur Donostiyara
 Elkarri begiraka
 Gu gelditu gera:
 Gero ikusirikan
 Erriko sarrera
 Arriturik eskastu
 Zaigu zentzuera.

Ezagutu eziñik
 Gure begiyetan
 Esna arkitzen geran
 Edo gauden lotan:
 Donostiyako kale
 Berri ederretan
 Edo Arkadiako
 Peloponesetan.

Lenagoko antzikan
 Ez dauka erriyak
 Beste bat irudi du
 Orañ Donostiyak:
 Berriro moldaturik
 Eder, egokiyak,
 Eche, kale, plaza ta
 Eleiz atariyak.

Adiskide maiteak
 Au da Donostiya
 Orain sei urte t'erdi
 Erretako erriya:
 Polita zan lenago
 Gaur ederregiya
 Beti paregabea
 Ta maitagarriya.

EUSKARICHOA.

Arzayak oroipena
 Ostegun gizeni
 Guztiyok arratsera
 Guztiyok kantari:
 Esker onez beteak
 Gu Donostiyari
 Zorion berarekiñ
 Bere jendeari.

JOSÉ VICENTE ECHEGARAY.